

ZENBAIT LEGE ALDATZEKO LEGE-AURREPROIEKTUA, LEGE HORIEK ABENDUAREN 12KO 2006/123/EE DIREKTIBARA EGOKITZEKO, HAU DA, BARNE-MERKATUKO ZERBITZUEI BURUZKO EUROPAKO PARLAMENTUAREN ETA KONTSEILUAREN DIREKTIBARA.

ZIOEN AZALPENA

Europar Batasuna osatzeko itunetan bermaturik dago salgaiek, pertsonak, zerbitzuek eta kapitalak oztoporik gabe zirkulatuko dutela, barruko inongo mugarik gabe, hau da, barruko merkatuan.

Lisboako strategiaren itzalpean, 2006ko abenduaren 12an, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/123/EE Direktiba onartu zen, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, edo, aurrerantzean, Zerbitzuen Direktiba. Urte horretan bertan jarri zen indarrean, abenduaren 28an. Barruko zerbitzu-merkatuak esan nahi du Batasuneko estatu bateko pertsona fisikoek eta juridikoek ez dutela eragozpenik Batasuneko beste estatu bateko lurraldean kokatzeko, eta esan nahi du, orobat, zerbitzuak eskaintzeko askatasuna ere badagoela, eskaini behar diren estatu kidean kokatu beharrik gabe.

Direktiba hori derrigor aplikatu beharrekoa da, Erkidegoko zuzenbide eratorria baita, baina, ez hori bakarrik. Zerbitzuen arloak oso garrantzi handia du Erkidegoko ekonomian, eta direktiba horri esker, aukera paregabea dugu arloa bera goitik behera berritzeko, hau da, arlo horrek Europan duen emanahala trabarik gabe garatu ahal izateko berebiziko tresna da.

Zerbitzuen Direktibaren helburua Europar Batasunean benetako zerbitzu-merkatu bakarra iristea da, arau-esparru gardena, kontraesanik gabea eratuz. Badakigu, era berean, esparru horrek zein norabide izan behar duen begiz jota: ekonomiaren jarduera bera; estatu kideetan eragozpenik gabe kokatzea eta eragozpenik gabe eskaintzea zerbitzuak; oztopo zentzugabeak edo neurrigabeak bidetik kentzea; prozedurak erraztea eta, azken batean, Batasuneko estatuen artean elkarrenganako konfiantza sustatzea eta barruko merkatuan zerbitzuak eskaintzen eta kontsumitzen dituzten konfiantza sustatzea.

Zerbitzuak trabarik gabe eskaintzea dela-eta, direktibak dio legezko eta administrazio-arloko alferreko trabak bertatik kendu egin behar direla, hau da, beharrik gabe, neurri gabe edo bazterkeriaz –horiek baitira bete beharreko irizpideak- Batasuneko Estatuetan kokatzeko eta zerbitzuak eskaintzeko askatasunak oztopatu edo mugatzen dituzten trabak eraitsi egin behar direla. Eta prozeduraren batek irizpide horiek betetzen baditu, eta direktibaren arabera

ere beharrezkoa baldin bada premiazkoa delako edo denon onerako delako, bi aukera izango ditugu: prozedurak agintzen dituen izapideak eta eskakizunak erraztu, edo ordezko beste aukeraren bat aurkitu, zerbitzuak eskaintze hori hain gauza gaitza izan ez dadin.

Baina Zerbitzuen Direktibak baditu beste helburu garrantzitsu batzuk ere, esate baterako: administrazio-bidea erraztea, prozedurak eta izapideak elektronikoki eginaraziz eta halakoetarako "leihatila bakarrak" zabalduz; kontsumitzaileek zerbitzu-erabiltzaile gisa dituzten eskubideak sendotzea eta zerbitzu horien kalitatea bermatzea; eta Batasuneko estatuak administrazio-arloan bata besteari fin-fin laguntzea, bai estatuen artean, bai eskualdeen artean eta baita herrien artean ere.

Estatua hasi da direktiba hori Espainiako ordenamendu juridikora biltzeko lana egiten. Horretarako idatzi du azaroaren 23ko 17/2009 Legea, oinarrizkoa, zerbitzu-jardueretara oztoporik gabe iristeari eta zerbitzuetan oztoporik gabe jarduteari buruzkoa. Bertan, Zerbitzuen Direktibaren baitako printzipio orokorrak jasotzeaz batera, autonomia-erkidegoetako araudiak egokitzen hasteko irizpide erkideak ere zehaztu dira. Lege hau ez da, ikuspuntutik, epelkeriatan ibili. Printzipio horien aplikazioak orokorra izan behar duela dio, hartara, zerbitzuen arloa arautzen duen esparrua osorik hobetzeko, eta, hartara, tartean diren alorretan indarririk alferrik ez galtzeko, gehiago ekoizteko eta enplegu gehiago sortzeko, eta, era berean, herritarrek eta enpresek zerbitzu-mota gehiago eta hobeak izan ditzaten eskura. Azaroaren 23ko 17/2009 Legeak, zerbitzu-jardueretara libreki iristeari eta haietan libreki aritzeari buruzkoak, batez ere bi gauza lortu nahi ditu, alde batetik, kokatzeko oinarrizko askatasunekin eta zerbitzuak libreki eskaintzearekin bateragarriak diren araugintzako printzipioak sendotu, eta, aldi berean, zerbitzuak eskuratzeko eta zerbitzuetan jarduteko aukerak zentzurik gabe murriztu besterik egiten ez duten oztopoak ezabatu eta trabak murriztu. Bereziki, legeak azpimarratzen du administrazio publikoek sektore honetan parte-hartzeko dituzten tresnak zehatz-mehatz aztertu behar direla, eta honako printzipio hauek hartu behar direla aintzat: ez diskriminatzeko printzipioa, interes publikoko arrazoi saihestezinak daudelako justifikazio-printzipioa, eta arrazoi horiek kontuan hartzeko proportzionaltasun-printzipioa. Beste alde batetik, prozedurak sinplifikatu egin behar direla esaten du, alferrikako luzapenik gerta ez dadin, eta zerbitzuak ematen dituztenei zama administratiboak arin dakizkien. Horretaz gain, zerbitzuen erabiltzaileen eta kontsumitzaileen bermeak indartu egiten dira, zerbitzu-emaileak garbi-garbi jokatzera behartuta daudelako, bai eman behar duten informazioari dagokionez, baita erreklamazioei dagokienez ere.

Eta bilketa-lan hori amaitzeko, estatuak 25/2009 Legea idatzi du, abenduaren 22koa. Zenbait lege aldatzea du helburu, zerbitzuetako jardueretara libre iristeari eta jarduera horietan aritzeari buruzko legera egokitzeko. Azken batean, egiten duena da Zerbitzuen Direktibako xedapenen eraginpean dauden estatu-lege batzuk aldatzea.

Arau horietan aginduta datozen irizpide orokorrak, osotasunean ulerturik, proposatu diren lau helburuetako bakoitzean aplikatzen dira. Lehen-lehenik,

aurretiazko baimenen beharra bertatik kentzea, eta, beharrezkoa denetan, ordezkio modura, gerora egin beharreko jakinarazpenak edo adierazpenak erabiltzea, agintari eskumendunek jarraipena egin ahal izan dezaten. Jakinarazpen edo adierazpen horietan, dena delako zerbitzua eskaintzen duen pertsonak edo enpresak bere gain hartuko du bere jarduerak zuzen funtzionatzeko beharrezko baldintzak betetzeko ardura. Zerbitzuak oztoporik gabe eskaini ahal izateko baldintzaren bat betearaztekoan, arrazoiak fundamentuzkoa izan beharko du, neurrizkoa, eta ezingo du inor nazionalitatearen edo sozietate-helbidearen kariaz baztertu. Fundamentuzko arrazoi horiek izan daitezke osasun publikoak, ingurumena zaindu beharrak edo ordena publikoak edo segurtasun publikoak eragindakoak.

Bigarrenik, administrazio-lanak sinpletze horretan aurrera egitea, alferreko tramite guztiak eraitsiz, eta, aukeran, jendeari gaitzik txikiena eragiten dioten bideak hartuz, esate baterako, tramitazioak telematikaz edo urrunetik egiteko aukera erraztuz. Horretarako, leihatila bakar bat zabalduko da, eta bertan egin ahal izango dira, arin-arin, zerbitzu-jarduera Europako edozein herrialdean garatzeko administrazio-tramite guztiak –Europakoak, estatukoak, autonomia-erkidegokoak eta tokian tokikoak-.

Hirugarrenik, kontsumitzaileen eskubideak eta bermeak indartzea, zerbitzua ematen duen enpresak edo pertsonak eta zerbitzuak berak ere informazio gehiago eman beharra izango dutelako. Eta erreklamaziorik baldin badago, hilabeteko epean erantzun beharko zaio, erreklamazioa jarri duten egunetik zenbatzen hasita. Eta azkenik, aurrerantzean, Espainiako agintariek eta Erkidegoko gainerako estatuetakoez lankidetzan aritzeko tresna sendoagoak izango dituzte. Europar Batasuneko herrialde guztietako administrazioek dute beren lurraldean kokaturik dituzten zerbitzuak eskaintzen dituztenen gaineko informaziorako, kontrolerako, ikuskaritzarako eta ikerketetarako lankidetzan aritzeko betebeharra, eta Europako Batzordeari ere lagundu behar diote eginkizun horretan.

Bada, hortxe dugu 2006/123/EE direktiba, hortxe dugu estatuak direktiba hori bere baitara biltzeko idatzi duen oinarritzko legedia ere, eta Euskal Autonomia Erkidegoak, orain, lege-mailako bere arauak haien arabera egokitzeko hartu beharreko neurriak hartu behar ditu. Horretarako egin dugu lege hau. Baliteke, gainera, tartean diren jarduera batzuetan autonomia-erkidegoak eskumen beteak ez izatea, baina haietarako habilitazioa bai izatea, bada, halakoetan ere kontuan hartu beharko da. Izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuko eskumen-tituluen bidez izango du habilitazio hori, eta eskumen-titulu horietan oinarriturik onartuko ziren, bere garaian, orain Zerbitzuen Direktibara egokitu beharrez aldatuko ditugun legeak.

Legeak hamabi artikulua ditu, xedapen gehigarri bat, aldi baterako hiru xedapen, xedapen indargabetzaile bat eta azken bi xedapen.

Lehenengo artikulua bidez, azaroaren 8ko 4/1991 Legea aldatu dugu, Euskal Autonomia Erkidegoan joko arautzen duen hori, alegia. Aurrerantzean, sariak 10.000 euro baino txikiagoak baldin badira, doako ausazko

konbinaketetarako ez da aurretiazko baimenik beharko, eta haren ordezt, erantzukizunpeko adierazpena eskatuko da.

Bigarren artikulua bidez, abenduaren 1eko 7/2006 Legea aldatu dugu, Euskadiko Museoei buruzkoa. Direktibak dakar zerbitzuak eskaintzen dituzten enpresak eta pertsonak askeak direla estatu kideetan kokatzeko, eta estatu kideen artean zerbitzuak eskaintzeko askatasuna dagoela. Horregatik, jartzen du, era berean, ezin dela horrela eta horrela inolako baimen-premiarik ezarri zerbitzuak eskaini ahal izateko, salbuespena izan behar duela horrek, tartean baldintza batzuk daudenerako soilik. Eta Euskadiko Museoei buruzko Legea aztertzen baldin badugu, ikusiko dugu 2. artikuluko 7. paragrafoa aldatu beharra dagoela, baimen-sistema bat dakarrelako horretarako baldintzarik ez egonagatik ere, eta, hortaz, aipatu berri ditugun eskubide horiek urratu egiten dituelako.

Hirugarren artikulua bidez, azaroaren 12ko 8/2004 Legea aldatu dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoa. Aurrerantzean, aurretiazko baimena ez baino, erantzukizunpeko adierazpena eskatuko da. Adierazpen horretan, gauza hauek jaso beharko dituzte: dena delako jardueran aritzeko legezko eta erregelamenduzko baldintzak betetzen direla, hala dela egiaztatzeko agiriak edonoren eskura eduki behar dituzte, eta jarduera horretan ari diren bitarte osoan beteko dituztela agindu beharko dute. Era berean, aurrerantzean ez da zertan, jarduerari ekin baino lehenago derrigor, Industria Establezimenduen Erregistroan inskribatu beharrik izango. Orain arte interesdunak eskatu behar izaten zuen, eta aurrerantzean administrazioak berak egingo du, bere kasa. Azkenik, arau-hausteen eta zehapenen artean ere bada berritasunik. Aurrerantzean, erantzukizunpeko adierazpenean gezurra esatea, datu oker-antzekoak ematea edo derrigorrezko datuak eman gabe uztea zehapen-araubidean jasota egongo da, eta adierazpen hori ez aurkeztea ere bai. Eta beste aukera bat ere jaso dugu: administrazioaren ebazpen bidez, interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

Laugarren artikulua bidez, Turismoa Antolatzeko martxoaren 16ko 6/1994 Legean funtsezko hainbat aldaketa egin dugu, baina horrek ez du esan nahi beste arrazoi batzuegatik beste aldaketa txikiago batzuk ere egingo ez ditugunik. Batez ere, hauteskunde-legean egindako aldaketa aipatu behar:

- Aurrerantzean, jarduerari ekin baino lehenago ez da administrazioaren baimena lortu beharrik izango, eta, horren ordezt, erantzukizunez adierazi beharko dute betetzen dituztela dena delako jarduerarako legezko eta erregelamenduzko baldintzak, badituztela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta jarduerak irauten duen bitarte osoan beteko dituztela. Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten egunetik bertatik ekin ahal izango zaio dena delako jarduerari. Administrazioak, hala ere, badu gauza batzuk konprobatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena, beste erakunde batzuek ere badituzte, eskumenez, beste ahalbide batzuk, eta honek ez du esan nahi

erabili ezin dituztenik. Ondorioz, aurrerantzean, martxoaren 16ko 6/1994 Legean, erregistroko inskripzioa ez da ezer osatzeko derrigorrezko inskripzioa izango. Hainbat urraketaren ondorioak ere zehaztu ditugu: erantzukizunpeko adierazpenarekin batera joan behar duten datu, adierazpen edo agirietan funtsezko zer edo zer aurkeztu gabe uzteak, edo, aurkeztu bai, baina bertan oker-antzekoak edo gezurrak adierazteak dakartzan ondorioak.

- Hainbat administrazio publiko dagoenez eta bakoitzak bere eskumenak dituenez, administrazio guztien lana koordinatzearen, Turismo Administrazioak txosten bat eman beharko duela ere jaso dugu. Derrigorrezkoa izango da, udalek eskatu beharko dute udal-lizentzia eman aurretik, eta dena delako proiektuak turismoari buruzko xedapenak betetzen dituenentz argitzeko izango da.
- Turismoko enpresek badute kokatzeko askatasuna, baina, lanean hasi aurretik, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute turismo-administrazioan.
- Erregelamenduetan turismoko enpresa eta establezimenduetarako aginduta datozen eskakizunetakoren bat bete ezin baldin bada, bada beste aukera bat ere: erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu baino lehenago, turismoko administrazioari salbuespen-baimena eskatzea. Salbuespen-baimena eskatu, eta hiru hilabetera oraindik ez badugu baietz edo ezetz ebatzi, ulertu beharko da ezetsi egin dugula, kontsumitzaileak eta zerbitzu-erabiltzaileak hobeto babestearren.
- Aurrerantzean, turismo-baserri eta landetxeetarako, ez da bertan bizi beharrik izango. Turismoa antolatzeke martxoaren 16ko 6/1994 Legea idatzita dagoen moduan, 26. eta 27. artikuluetan hain zuzen ere, titularrak ohiko bizilekua baserri-ostatuan eduki behar du, bertan edo bertako bizileku batean. Baina Zerbitzuen Direktibako 14. artikulua dio baldintza hori debekatuta dagoela eta ezabatu egin behar dela.
- Bidaia-agentzien arloan, aurrerantzean, alde batetik, ez da eksklusibitate eskatuko (hala dio Zerbitzuen Direktibako 25. artikulua, diziplina anitzetako jarduerak direla-eta), eta, beste alde batetik, ez da zertan gutxieneko kapital bat jarria eduki beharrik izango (hala dio Zerbitzuen Direktibako 15. artikuluan, ebaluaketarako baldintzak direla-eta).
- Bidaia-agentzietan, eksklusibitate beharrik ez dagonez, eta turismo-enpresen xedapen erkideen pean geratu direnez (aurretiazko adierazpena, baina lizentziarik ez), intrusismoari buruzko artikulua ezabaturik geratuko dira.
- Jan-edanerako ostatuei buruzko xedapen batzuk aldatu egin ditugu, eta, aurrerantzean, bi motatakoak izango ditugu: jatetxeak eta tabernak; kategoria-sailkapena ezabatu egin dugu; ez da zertan erantzukizunpeko adierazpenik aurkeztu beharko; eta ez da zertan turismo-enpresen erregistroan sartu beharko.
- Turismo-arloko lanbideak direla-eta, legeak beren beregiz jasota dakar erregelamenduz kualifikazioen bat eduki beharra eskatzeko aukera. Horrek ez du esan nahi beste estatu kide

batzuetako zerbitzu-emaileen lanbide-kualifikazioa aitortuko ez denik.

- Azkenik, arau-haustek eta zehepenak datoz. Zehapen-araubidean, zehatzeko kasu berri batzuk gehitu ditugu, hain zuzen ere, erantzukizunpeko adierazpenean derrigor jaso beharreko datuak zehatzak ez izatea edo jarri gabe uztea. Eta beste aukera bat ere jaso dugu: administrazioaren ebazpen bidez, interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

Bosgarren artikulua bidez, Mahastizaintza eta Ardogintza Antolatzeko maiatzaren 7ko 5/2004 Lege aldatu dugu, 30. artikuluko zati batzuk ez zetozelako bat Zerbitzuen Direktibarekin, eta hain zuzen ere, 14. artikuluko 1. eta 8. paragrafoetan jartzen duenarekin. Ardogintzako produktuak ezabatu beharra ere jaso dugu lege honetan, eta, ondorioz, arau-hausteen eta zehapenen araubidea ere egokitu dugu, betebehar hori urratzen denerako.

Seigarren artikulua bidez, otsailaren 27ko 3/1998 legea aldatu dugu, Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko Lege Orokorra, alegia. Zerbitzuen Direktiban zer jartzen duen ikusita, sailkaturik dauden jardueren araubide juridikoa aldatzea da egin beharrekoa. II. eranskinean dago jarduera horien zerrenda. Egin duguna da jarduera bakoitzak ingurumenean eta pertsonengan zer-nolako eragina duen ikusi, eta administrazioak jarduera horietan esku hartzeko hainbat araubide zehaztu, eragin horren arabera. Hartara, ustez eraginik txikiena dutenek bete behar duten araubidea komunikazioarena izango da. Horretarako, 3/1998 Legeko III. Tituluko III. Kapituluak hainbat artikuluren edukia aldatu, eta zehapen-araubideari buruzko artikulua egokitu egin ditugu.

7. artikulua bidez, Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea aldatu dugu. Izan ere, lege horretan badira gauza batzuk gure ustez Zerbitzuen Direktibaren eta estatuko arauen aurkakoak direnak edo haiekin bat ez datozenak. Legean egin ditugun aldaketetan, badira funtsezko gauza batzuk, legea aplikatzeko orduan oinarritzko printzipio modura balio dutenak, esate baterako, kontsumitzaileak babestu beharra eta lehia-eskubidea errespetatzea. Beste alde batetik, elkargoaren funtzionamenduari berarekin zerikusia duen hainbat kontu ere ukitu dugu, hala nola, derrigor kolegiatu beharra, elkargoaren bisatua eskatu beharra, elkargoek gutxi gorabeherako baremoak jartzea, eta direktibaren asmo orokorarekin zerikusi handiagoa duten beste hainbat gauza, zerbitzua partikularrari eskaintzen zaionerako, esate baterako, informazio-leihatila bakarra.

Zortzigarren artikulua bidez, ekainaren 17ko 12/1994 Legea aldatu dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzkoa, alegia. Herritarrek administrazioa jotzeko duten bidea eta hark eman beharreko erantzuna ere badatoz nolabait direktiban jorraturik, eta han dioena legera ekartzea izan da egin duguna. Beste alde batetik, aurrerantzean administrazioak fundazioekin ez du orain arteko moduan jokatu, hau da, fundazio berririk sortu behar denean,

orain arte baino malguagoa izango da, gauzak errazteko joera izango du, eta jarrera hori bera izango du fundazioetan denboraren poderioz eta ibiliaren ibiliz gertatzen diren aldaketak onartzeko orduan ere, hala nola, gobernu-organoa, patronatua, osaketa-araua edo sorrerako estatutuak aldatu behar dituztenean, eta jarrera berri hori ere islatu dugu, egin beharreko aldaketak eginez. Orain bete behar izaten diren baldintza batzuk direla-eta, Fundazioen Erregistroan eskabiderik aurkezten denean, administrazioa nahikoa arin erantzun ezinik ibiltzen da, aurkezten diren eskabide guztiei garaiz erantzun ezinik, administrazio eraginkor eta zuzen batek beharko lukeen bezain garaiz esan nahi dugu. Bada, oztopo horiek ezabatzea da egin duguna.

Bederatzigarren artikulua bidez, ekainaren 17ko 11/1994 Legea aldatu dugu, hau da, Euskal Autonomi Elkarte Ordenazio Farmazeutikorako Legea. Izan ere, Zerbitzuen Direktibako 15. artikuluan jartzen duenez, balioetsi beharreko eskakizunen artean, batek dio ikusi behar dela ea badagoen edo ez "langile-kopuru gutxieneko bat edukitzeko" obligazioaren bat. Beste alde batetik, azaroaren 23ko 17/2009 Legeko 11. artikuluan jartzen duena ere bete nahi izan dugu (zerbitzuetara libreki iristeari eta zerbitzuetan libreki jarduteari buruzkoa da lege hori), han jartzen baitu zerbitzuetara iriste hori edo zerbitzuetan jardute hori ez dela langile-kopuruari buruzko ezelako eskakizunen edo halako edo bestelako jatorriz edo modalitatez kontratatzeko obligazioaren mendean egongo. Horregatik ezabatu dugu lege horretako 31. artikuluko 3. ataleko bigarren paragrafoa (Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko Legeaz, ekainaren 17ko 11/1994 Legeaz ari gara).

Hamargarren artikulua bidez, abenduaren 5eko 12/2008 Legea aldatu dugu, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. Lau gauza aldatu ditugu. Lehenik eta behin, aurrerantzean, gizarte-zerbitzuak betetzen eta eskaintzen jardun ahal izateko, aurretiaz administrazioaren dena delako baimena lortu beharko da, eta, gainera, aseguru-poliza bat hitzartu beharko da, titularren erantzukizun zibila estalita edukitzeko, badaezpada lokaletako, instalazioetako eta zerbitzuetako baldintza objektiboak direla-eta edo zerbitzuko langileen lana dela-eta erabiltzaileei inolako kalterik eragiten bazaie ere. Bigarrenik, baimena emateko prozeduran, administrazio-isiltasunak ezetz esan nahiko du, hartara, gizarte-zerbitzuak erabili behar dituztenak behar bezala babesteko. Hirugarrenik, baliteke dena delako zerbitzua eskaintzeko, establezimendu fisiko, egonkor baten premia egotea, hartan oinarriturik eskaintzeko zerbitzua. Halakoetan, zerbitzuak betetzeko eta eskaintzeko administrazio-baimen bakoitza halako establezimendu fisiko bakarrerako izango da, hartara, zerbitzuak erabili behar dituztenak behar bezala babesteko. Eta, azkenik, gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Europar Batasuneko beste estatu batean kokaturik baldin badaude, aurrerantzean, libreki eskaini ahal izango dituzte zerbitzu horiek, erregistroan izena eman beharrik gabe, edo gizarte zerbitzuak betetzeko eta eskaintzeko aurretiazko administrazio-baimena lortu beharrik gabe.

Hamaikagarren artikulua bidez, otsailaren 8ko 1/2008 Legea aldatu dugu, Familia Bitartekaritzakoa. Familia-bitartekariaren jardura profesionala ez arautzea aukeratu dugu, eta, horrenbestez, Familia Bitartekaritzako Legeko xedea mugatuago egongo da, hau da, familia-bitartekaritza bai arautu dugu,

baina Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazioen eta Zerbitzuen Katalogora begira, bigarren arretako gizarte-zerbitzua den aldetik dugu arautu, eta, bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko familia-bitartekaritzako zerbitzu publikoetako familia-bitartekarien jarduera ere arautu dugu. Ez dugunez familia-bitartekaritza bera, jarduera bera, arautu, Familia Bitartekaritzako legea ez dago, jada, direktibaren eraginpean, ez baitu familia-bitartekari aritzen hasteko eta aritzeko inolako eskakizunik ezartzen. Alde horretatik, bai elkargoek -autonomoak baitira- beren kasa egiten duten bitartekaritza eta bai bestelako bitartekariak zerbitzu publikoetatik kanpora ogibidez egiten duten bitartekaritza ere Familia Bitartekaritzako Legearen aplikazio-eremutik kanpora daudela-eta, legea egokitu egin behar izan dugu, eta, horretarako, artikuluetan aldatu beharrekoa ere aldatu dugu.

Hamabigarren artikulua bidez, ekainaren 30eko 2/2006 Legea aldatu dugu, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzkoa. Aurrerantzean ez da, orokorrean, irekierako lizentzia lortu beharrik izango. Irekitzeko, nahikoa izango da ingurumenari buruzko arauetako baldintzak betetzea, eta, arau horiek direla-eta, establezimendua sustatu duenak adierazi beharko du betetzen dituela baldintza horiek, hori ere bai.

Xedapen gehigarri bakarrean, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioeko sailak ditugu gure hitzen jomuga, eta eskatu diegu egin dezatela egin beharrekoa, zerbitzuak eskaintzen dituzten horien inskripzioak dagozkien erregistroetara egokitzeko, bakoitzak bere eskumenen esparruan.

Lehenengo xedapen iragankorrean, legea indarrean sartu baino lehenagotik abiarazitako baimen-prozeduretan aplika daitekeen araubide iragankorra zehaztu dugu.

Legea indarrean jarri aurretik, ere, bazen hainbat pertsona eta enpresa zerbitzuetan aritzeko baimendurik edo habilitaturik, eta, hain zuzen ere, bigarren xedapen iragankorrean, halakoei aplika dakiekeen araubide iragankorra arautu dugu, hau da, lehenagoko administrazio-baimenaren orde, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dutela, edo zerbitzuetara iristeko edo zerbitzuetan aritzeko aurretiazkoa.

Eta hirugarren xedapen gehigarrian, berriz, sailkapeneko jardueren komunikazioetan gutxienez zein baldintza bete behar diren zehaztu dugu, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurugiroa Babesteko Legeko 56. artikuluan aurreikusitako erregelamendu-garapena egin arte (lege horrek 3/1998 zenbakia du eta otsailaren 27koa da).

Maila bereko edo beheragoko xedapenen bat lege honetan xedaturikoaren aurkakoa bada, xedapen indargabetzaile bakarraren bidez indarrak gabe geratuko da.

Azken xedapenetan lehenak Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak sortzeko bidea ematen dio, dagozkion eskumenen esparruan.

Azken xedapenetan bigarrenak, azkenik, agintzen du lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko dela indarrean.

1. artikulua.- Aldatu dugun legea: 4/1991 Legea, azaroaren 8koa, Euskal Herriko Autonomi Elkartean jokoa arautzekoa.

Bat. 3. artikuluan beste atal bat erantsi dugu, 5. atala. Honela dio:

“5.- Ausazko konbinazioa diogunean, zozketa-mota jakin batzuk ditugu gogoan, hauexek hain zuzen ere: edozein baliabide eta eusgarri erabil daiteke, baita telematika eta elektronika ere; produktu edo zerbitzu baten publizitatea egiteko da, ez beste ezertarako; dena delako ondasun edo zerbitzu hori kontsumituz ordaintzen da; ez ditu ondasun edo zerbitzu horiek garestitzen; eta saria izan daiteke dirutan, gauzatan, edo zerbitzutan.”

Zozketa-eguna iristerako, sariak oraindik ezin du eskuratu gabe egon; eta leku jakinen batean instalatua edo jarria egon behar du, egon badagoela jakiteko moduan, edo balio duena bezain besteko abala osatzeko moduan.

Gero, gainerakoan, dena delako arloko erregelamenduetan jasoko da ausazko promozioetan zein arau bete behar diren txartelak edo partizipazioak banatzeko, edo sariak banatzeko orduan eta publizitatea egiteko orduan garbi-garbi jokatuko dela bermatzeko.

Bi. 5. artikuluan beste atal bat erantsi dugu, 5. atala. Honela dio:

“5.- Erabiltzaileei eta kontsumitzaileei eskaintzen zaizkien sarien zenbatekoa ez baldin bada, guztira, hamar mila euro baino gehiagokoa, publiziterako edo sustapenerako ausazko konbinazioak antolatze, egiteko eta garatzeko, ez da aurretiazko administrazio-baimenik beharko. Halakoetan, enpresa antolatzaileak erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko du Joko eta Ikuskizunetarako Zuzendaritzan, ausazko konbinazioa hasi baino lehenago.

Erantzukizunpeko adierazpenak jarduna garatzeko bidea ematen du, aurkezten den egunetik bertatik, baina inola ere baztertu gabe Joko eta Ikuskizunetarako Zuzendaritzak esleituta dauzkan egiaztatze-, kontrol- eta ikuskatze-ahalmenak.

Agiri horretan, antolatzaileak, bere erantzukizunpean, adieraziko du betetzen dituela dena delako arloko erregelamenduetan aginduta datozen eskakizunak, badituela hala dela erakusten duten agiriak, eta agintzen duela jarduera amaitu arte ere beteko dituela”.

2. artikulua.- Aldatu dugun legea: 7/2006 Legea, abenduaren 1koa, Euskadiko Museoei buruzkoa.

Bat. 2. artikulua izenburua aldatu egin dugu. Aurrerantzean, izen hau izango du:

“2. artikulua.- Museoak eta bildumak: zer diren eta zertarako diren”.

Bi. 2. artikuluko 7. atala ezabatu egin dugu.

3. artikulua.- Aldatu dugun legea: 8/2004 Legea, azaroaren 12koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Industriakoa.

Bat. 3. artikuluko 3. ataleko d) letra aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“d) Enpresa instalatzaile, mantenimendu-egile edo konpontzaileei, agintzen zaizkien instalazioak zuzen burutzea edo mantentzea, eta jarduera hasteko eta garatzeko jarrita dauden baldintzak betetzea”.

Bi. 4. artikulua izenburua, 2. atala eta 3. atala aldatu, eta beste lau erantsi ditugu: 4, 5, 6 eta 7garrena. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“4. artikulua.- Industria-jardueren abiaburuko eta funtzionamenduko araubide orokorra. Erantzukizunpeko adierazpena, komunikazioa eta baimena.

2. Industria-jarduerak nahi den lekuan instalatzeko, zabaltzeko eta lekualdatzeko askatasuna dago.

3. Edonola ere, interesatuaren komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena beharko da, eta, bertan, adierazi beharko du betetzen dituela eskatutako baldintzak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitarte osoan beteko dituela eta agintari eskumendunei jarduera kontrolatzeko behar duten informazio guztia emango diela:

a) Legez dagoenean hala aginduta, arrazoi hauek tarteko: ordena publikoa, segurtasun eta osasun publikoa, laneko segurtasuna eta osasuna edo ingurumenaren babesa.

b) Erregelamenduz dagoenean hala aginduta, estatuak erkidegoko arauetatik edo nazioarteko itun eta hitzarmenetatik datozen obligazioak bete behar dituela-eta.

Dena delako enpresak establezimendu bat baino gehiago baldin badu, establezimendu fisiko bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko da, zerbitzuak eskaintzen dituzten lekutik, hartara, kontsumitzaileak eta zerbitzu-erabiltzaileak babestearren.

4. *Komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena Euskal Autonomia Erkidegoan aurkezten duenak, aurkezten duen egunetik aurrera, estatu osoan izango du dena delako horretan jarduteko bidea, epe-mugarik gabe. Beste autonomia-erkidego batean aurkeztutako komunikazio edo erantzukizunpeko adierazpenei ezingo zaie beste eskakizun edo baldintza osagarririk ezarri.*

5. *Dena delako jardueran aritzeko funtsezko eskakizunak bete gabe geratzen badira, eta interesatua jakinaren gainean baldin badago, jarduera eten egin beharko du berehala eta besterik gabe, eten behar hori eragin duen arrazoia konpondu arte. Interesdunak ez badu jarduera eteten, eta agintari eskumendunek jakiten badute ez direla eskakizunak betetzen, interesdunari hiru eguneko epea eman azalpenak emateko, eta jarduera geldiarazteko aginduko dute lehenbailehen, organo arduradunaren ebazpen bidez. Horrek ez du esan nahi zehapenik jarriko ez denik, jarri behar bada.*

Hori ez da jarduera geldiarazteko arrazoi bakarra: administrazioak ikusten baldin badu erantzukizunpeko adierazpeneko edo komunikazioko datuetan, adierazpenetan edo agirietan badela funtsezko zer edo zer zehatza ez dena, gezurra dena edo faltan dena; edo ikusten badu adierazpena edo komunikazioa bera dagoela aurkeztu gabe, gauza bera egin dezake.

Urraketaren berri jasotzen duen administrazio-ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

Jarduera geldiaraztea edo etetea eragin zuen arrazoia konpondu arte eta prozeduran esku hartu duen administrazioak hala dela ikusi arte, ezingo zaio atzera hari ekin.

6. *Interesdunek erantzukizunpeko adierazpenean edo komunikazioan ematen dituzten datuek Industria Establezimenduen Erregistrarako datu modura balioko dute, hurrengo artikuluan zehazturik dagoen bezala.*

7. *Aurretiazko administrazio-baimena eska daiteke, soil-soilik, baldintza hauek betetzen direnean: ezin da inor baztertu, premiak eta proportzionalitateak behar bezain ondo arrazoiturik egon behar dute eta legez ere hala erabakita egon behar du, eta erkidegoko arauetatik edo nazioarteko hitzarmen eta itunetatik datozen obligazioak betetzeko ezinbestekoa denean.*

Hiru. 5. artikuluko 1, 2 eta 3. paragrafoak aldatu egin ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“1.- Industria Establezimenduen Erregistroko inskripzioa administrazioak berak egingo du bere kasa, baimenean edo komunikazioan edo erantzukizunpeko adierazpenean jasota datozen datuetatik abiaturik”.

2.- Industria Establezimenduen Erregistroa, batez ere, administrazioarako lan-tresna bat da, informazioa eskuratzeko erabiltzen duena, industria-segurtasunerako eta industria-jarduerei buruz eta industria-jarduerekin zerikusia duten zerbitzu-jarduerei buruz.

3.- Baimenean edo komunikazioan edo erantzukizunpeko adierazpenean, gutxienez, enpresen, industria-establezimenduen, industria-zerbitzuetarako enpresen eta eragile laguntzaileen datu orokorrak adierazi beharko dira. Lege honetako 14. artikuluan dago zehazturik nor diren eragile horiek. Edonola ere, behin datuak administrazioari jakinarazi ondoren, ez da haren erantzunik edo oniritzirik beharko, jardueran aritzeko, eta ezta Industria Establezimenduen Erregistroan benetan inskribatzea ere.

Baimenik, erantzukizunpeko adierazpenik edo komunikaziorik behar ez duten jardueretan ari diren pertsona fisikoek edo juridikoek badute beste aukera bat ere: organo eskumendunari beren jarduerari buruzko datuak jarduera bera hasi eta gero ematea, Industria Jardueren Erregistroko inskripzioa ofizioz egiteko.

Estatuko erregistroan ere inskriba dadin, organo eskumendun horrek industriako eskumenak dituen ministeriora bidaliko ditu beharrezko datuak.”

Laugarrena. 14. artikuluko 1. ataleko a), b) eta f) letrak eta 7. atala aldatu egin ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“1. Lege honek dakartzan ondorioetarako, pertsona natural edo juridiko batzuk eragile laguntzailezt hartuak izateko, beren zeregina betetzeko nahikoa gaitasun tekniko eta finantzazkoa eduki behar dute, eta beharrezko inpartzialtasuna, eta egiaztatu behar dute betetzen dituztela agindutako xedapen teknikoak, eta betetzen dituztela, orobat, industriako segurtasunarekin zerikusia duten eginkizunetan aritzeko eskakizunak – legez edo erregelamenduz zehaztuak-, lege honetan ezarrita dagoen moduan. Hauek hartu ahal izango dira eragile laguntzailezt:

a) Kontrolerako edo egiaztapenerako erakunde modura edo saiakuntza- edo kalibratio-laboretegi modura baimendutakoak, eta tartean substantzia arriskutsuak direlarik eta gertatzen diren lan-istripu larriei aurrea hartzeko entitate ebaluatzaile modura baimendutakoak.

b) Teknikari tituludun gaitasundunak, profesional kualifikatuak eta erregelamenduetan aurreikusitako espezialitateetakoren batean baimendurik dauden enpresak.

,f) Normalizazioarako eta egiaztapenerako erakundeak, batera aritzen direnetan industriako kalitate eta segurtasunerako; eta profesional kualifikatuak prestatzeko aitorturik dauden erakundeak.

7.- *Jardueran hasi ahal izateko baldintza modura, eragile laguntzaile bakoitza behartuta egongo da, erregelamenduz eskatzen den moduan, erantzukizun-arriskuak babestuko dituzten aseguru-polizak sinatzera; polizek zehazten den zenbatekoaren arabera izan beharko dute, baina zenbateko horrek ez du mugatuko aipatutako erantzukizuna.*

Bost. 31. artikuluan, d) letra aldatu, eta o) eta p) letrak gehitu ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“d) Industriako segurtasun-arauen menpe dauden instalazioak egitea, ziurtagiriak ematea edo kontrolatzea, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu izan gabe, edo behar den baimenik izan gabe.

o) Interesdunek, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dutenean, bertan, jarduerarako funtsezkoa den edozein datutan gezurra esatea edo zer edo zer jarri gabe uztea, erregelamenduz aginduta dauden eskakizunak betetzeari buruz.

p) Erregelamenduz agintzen diren funtsezko eskakizunak bete gabe jardutea”.

Sei. 32. artikuluan, beste letra bat erantsi dugu, h). Aurrerantzean, honela geratuko da:

“h) Interesdunek, komunikazioa edo erantzukizunpeko adierazpena aurkezten dutenean, bertan, jarduerarako funtsezkoa ez baina derrigorrezkoa baden edozein datutan zer edo zer jarri gabe uztea edo zehatz-mehatz ez adieraztea, erregelamenduz aginduta dauden eskakizunak betetzeari buruz.”

Zazpi. Laugarren xedapen gehigarria erantsi dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“Baliteke, jarduera batzuetan, lege honen arabera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar izatea, eta Proiektuetako Ingurumen Eraginari buruzko Legearen arabera edo hura garatzeko autonomia-arauen arabera, berriz, ingurumen-eraginaren ebaluaketa (lege hori urtarrilaren 11ko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen). Hala baldin bada, ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin arte ezingo da erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, eta derrigorra izango da, beti, hala egin dela egiaztatzeko agiriak edukitzea.”

4. artikulua.- Aldatu dugun legea: 6/1994, martxoaren 16koa, turismoa antolatzen duena.

Bat. 5. artikuluko 1. ataleko a) letra aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“a) Turismo-enpresako tegien iharduna antolatzea, hala behar izanez gero, dagokien taldea, klasea, mota eta maila finkatuz.”

2.- 5. artikuluan beste atal bat erantsi dugu, 3garrena. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“3.- Udalen ardura da lizentziak ematea, eta arlo honetako beren legeetan jartzen duenaren arabera emango dituzte. Edonola ere, lizentziarik eman baino lehenago, udalak Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioan turismoko eskumenak dituen organoari eskatuko dio esan dezala, txosten baten bidez, ea aurkeztu duten dena delako proiektuak turismo-arloko legeetan aginduta datozen baldintzak betetzen dituen edo ez. Txosten hori derrigorrezkoa da.

Bi. 8. artikulua beste era batera idatzi dugu. Honela geratuko da aurrerantzean:

“8. artikulua.- Turismoko enpresak kokatzeko askatasuna.

1.- Turismoko enpresek aitorturik dute kokatzeko askatasuna. Baina, jarduerari hasiera eman baino lehenago, turismo-ostatuko enpresek, bidaia-agentziek eta lege honetako 37. artikuluan zehazturik dauden turismo-enpresa osagarriek erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute turismo-administrazioan. Adierazpena titularrak egin beharko du, eta bertan adierazi beharko du, bere erantzukizunpean, betetzen dituela erregelamenduz agindutako eskakizunak, badituela hori hala dela egiaztatzeko agiriak, eta agintzen duela jarduerak irauten duen bitartean ere beteko dituela.

Turismo-ostatuko enpresek establezimendu fisiko bakoitzeko erantzukizunpeko adierazpen bat egin beharko dute, enpresek zerbitzuak eskaintzen dituzten lekutik, hartara, kontsumitzaileak eta zerbitzu-erabiltzaileak babestearren.

2.- Erantzukizunpeko adierazpena aurkezten duten egunetik bertatik ekin ahal izango zaio dena delako jarduerari, dagokion taldean, klasean, motan, mailan edo espezializazioan. Turismo-administrazioak, hala ere, badu gauza batzuk konprobatzeko, kontrolatzeko eta ikuskatzeko ahalmena, beste erakunde batzuek ere badituzte, eskumenez, beste ahalbide batzuk, eta honek ez du esan nahi erabili ezin dituztenik.

3.- Ez badute erantzukizunpeko adierazpena aurkezten, edo erantzukizunpeko adierazpeneko edozein datu, adierazpen edo agiritan funtsezko zer edo zer ez baldin bada zehatza, gezurra baldin bada edo faltan baldin badago, edo bete beharreko eskakizunak ez baldin badira betetzen, eta agintari eskumendunek hala dela egiaztatzen badute, baliteke ezin izatea dena delako jarduera horretan denbora luzeagoan aritu. Halakoetan, turismoko eskumenak dituen organoak prozedura bat abiaraziko du, eta, haren baitan, titularrak nahi dituen ebidentziak eta arrazoi-bideak azaldu eta aurkeztu ahal izango ditu. Eta hori dena ikusita, bere esku izango du jarduera geldiaraztea, ebazpen arrazoitu bidez. Horrek ez du esan nahi, zehapenik jarri behar bada, jarriko ez denik.

Gorabehera horien berri jasotzen duen administrazio-ebazpenak beste ondorio bat ere ekar dezake: interesatua behartzea egoera juridikoa dena delako jarduera hasi baino lehenagora itzularaztera, eta urtebetez behintzat gauza berbererako beste prozedurarik eskatzen ez uztea.

4.- Aitortutako datuetan aldaketarik baldin badago, ere, turismo-enpresek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute.

5.- Lege hau garatzeko xedapenetan turismoko enpresa eta tegietarako aginduta dagoen baldintzaren bat bete gabe geratzen bada, aurretiaz turismo-administrazioaren salbuespen-baimena lortu gabe ezingo da jarduera abiarazteko erantzukizunpeko adierazpenik aurkeztu.

Salbuespen-baimena eskatu, eta hiru hilabetera oraindik ez badugu baietz edo ezetz ebatzi, ulertu beharko da ezetsi egin dugula, kontsumitzaileak eta zerbitzu-erabiltzaileak hobeto babestearren”.

Hiru.10. artikuluko 1. atala aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“1.- Turismo-ostatuko enpresek, bidaia-agentziek eta lege honetako 37. artikuluan zehazturik dauden turismo-enpresa osagarriek eta beraien turismo-tegiek Euskal Autonomia Erkidegoko Turismo Enpresen Erroldan eman beharko dute izena. Turismo-arloko aginpidea duen organoari dagokio errolda hori, eta administrazio-izaerakoa eta publikoa izango da”.

2.- 10. artikuluko 2, 3 eta 4. paragrafoak ezabatu egin ditugu.

Lau. 23. artikulua ezabatu egin dugu.

Bost. 26. artikulua beste era batera idatzi dugu. Honela geratuko da aurrerantzean:

26. artikulua.- Baldintzak.

Baserri-turismotegiaren titularrak nekazaritza-esplotazioaren titularra edo titularkidea izan behar du.

Sei. 27. artikuluko 1. atala aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“1.- Hona hemen zer diren landetxeak: baserrialdean daude; prezio baten trukean ostatua eskaintzen dute (jatorduak eta guzti edo jatordurik gabe); eta, arkitekturaz, lekuan lekuko baserrien tankerakoak dira”.

Zazpi. 28. artikuluko 1 eta 3. atalak aldatu egin ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“1.- Turismo-aterpetxeak izango dira ostatua hainbat lagunentzako geletan eskaintzen dutenak, zerbitzu osagarriak eta guzti edo zerbitzu osagarririk gabe”.

“3.- Erregelamenduz arautuko da aterpetxeek zein baldintza bete behar dituzten, zer-nolako ikur adierazgarriak eduki behar dituzten eta aukeran zer-nolako espezialitateak izango dituzten.”

Zortzi. 1.- 29. artikuluko 1 eta 2. atalak aldatu egin ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“1.- Turismo-zerbitzuetako bitartekotza eta antolaketa lanbidez eta merkataritza mailan egiten dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak dira bidaia-agentziak”.

“2.- Bidaia-agentziak zein motatakoak izan daitezkeen erregelamenduz zehaztuko da, bakoitzak bete beharreko baldintzekin batera. Batez ere, zer-nolako zerbitzuak eskaintzen dituzten eta zer-nolako instalaziotan dauden izango da bereizketa-gakoa”.

Bederatzi. 33. artikulua ezabatu egin dugu.

Hamar. 34. artikulua beste era batera idatzi dugu. Honela geratuko da aurrerantzean:

“34. artikulua.- Kontzeptua.

Jatetxe-enpresak jantoki-zerbitzua duten tegi finkoetan janariak eta edariak tokian bertan jan eta edateko ohizkotasunez eta lanbidez ematen dituzten erakundeak dira.

Jatetxe-enpresek lege honetako 9. artikuluan zehazturik datozen obligazioak bete beharko dituzte.

Hamaika. 35. artikulua aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“Jatetxe-enpresak bi motatakoak izan daitezke, eskaintzen duten zerbitzua nolakoa den gorabeheran: jatetxeak edo tabernak”.

Hamabi. 36. artikulua ezabatu egin dugu.

Hamahiru. 40. artikulua beste era batera idatzi dugu. Honela geratuko da aurrerantzean:

“40. artikulua.- Kontzeptua.

Orientazio, informazio, laguntza eta antzeko ihardunak ohizkotasunez eta ordaindurik egiteari buruzko lanbide izan eta araudiz horrelakotzat zehaztu daitezkenak turismo-lanbideak dira. Kualifikazioren bat eduki beharra eskatzeko aukera ere badago. Horrek ez du esan nahi beste estatu kide batzuetako zerbitzu-emaleen lanbide-kualifikazioa aitortuko ez denik.

Hamalau. 65. artikuluan beste letra bat erantsi dugu, f). Aurrerantzean, honela geratuko da:

“f) Erantzukizunpeko adierazpenetan jaso beharreko derrigorrezko edozein datutan edo edozein adierazpenetan edo agiritan, jarduerarako funtsezkoa ez den zer edo zer zehatza ez izatea edo faltan izatea.

Hamabost. 66. artikuluko 1. ataleko a), c) eta p) letrak aldatu egin ditugu. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“a) Erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu gabe uztea; erantzukizunpeko adierazpeneko edo komunikazioko edozein datutan, adierazpenetan edo agiritan, jarduerarako funtsezko zer edo zer zehatza ez izatea, gezurra izatea edo faltan izatea; eta jarduerarako edo sailkaturik geratzeko ezinbesteko baldintzak bete gabe uztea edo aldatzea.

“c) Erantzukizunpeko adierazpenik aurkeztu gabe, tegi fisikoetan erreformak egitea eta erreforma horiek jarduerarako oinarrizko baldintzak aldatzea eta lehenagotik deklaraturiko baldintzetan ere eragina izatea.

“p) Turismo-arloko arauetan eskatzen diren aseguru-bermeak eta fidantzak egunean ez edukitzea.”

Hamasei. 71. artikuluko 2. ataleko c) letra eta 3. atala ezabatu egin ditugu.

Hamasei.- 74. artikuluko 2. atala aldatu egin dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“2.- Hutsegite oso larria errepikatu egiten bada eta dena delako urraketa horrek Euskadiko turismo-arloko interesak larriki kaltetu baditu, bidezko izango da tegia ixtea eta bi eta bost urte bitartean alor honetan berriro jarduten ez uztea.”

Hemezortzi. Lehen Xedapen Gehigarria ezabatu egin dugu.

Hemeretzi. Beste Lehen Xedapen Gehigarri bat sortu dugu. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“Lehena.- Martxoaren 16ko 6/1994 Legean, Turismoaren Antolaketari buruzkoan, gaztelaniazko bertsioan, “usuarios turísticos” jartzen duenean, “personas usuarias turísticas” esan nahiko du.

Hogei.- Beste hiru xedapen gehigarri erantsi ditugu: zazpigarrena, zortzigarrena eta bederatzigarrena. Aurrerantzean, honela geratuko dira:

“Zazpigarrena.- Lege honetan jartzen duenez, jarduerari hasiera eman baino lehenago turismo-administrazioaren baimena edo aitortpena lortu beharra dago. Bada, aurrerantzean, horren orde, ulertu beharko da interesdunak, jarduerari hasiera eman baino lehenago, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko duela.

Zortzigarrena.- Baliteke, jarduera batzuetan, lege honen arabera, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu behar izatea, eta Proiektuetako Ingurumen Eraginari buruzko Legearen arabera edo hura garatzeko autonomia-arauen arabera, berriz, ingurumen-eraginaren ebaluaketa (lege hori urtarrilaren 1eko 1/2008 Legegintzako Errege Dekretu bidez onartu zen). Hala baldin bada, ingurumen-eraginaren ebaluazioa egin arte ezingo da erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu, eta derrigorra izango da, beti, hala egin dela egiaztatzeko agiriak edukitzea.

Bederatzigarrena.- Lege hau indarrean sartzen den egunean erregelamenduzko kategorietakoren batean baimendurik eta sailkaturik dauden jatetxe-enpresek bi urte izango dituzte, lege hau indarrean jartzen denetik, beren kategoriari dagozkion plakak eta bereizgarriak bertatik kentzeko. “

5. artikulua.- Aldatu dugun legea: 5/2004 Legea, maiatzaren 7koa, Mahastizaintza eta Ardogintza antolatzekoa.

Bat. Beste era batera idatziko da 15. artikuluko 5. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“5.- Ardoa egin duten pertsona fisiko edo juridikoek, eta pertsona horiek osatutako taldeek ardoa egitetik sortutako azpi-produktu oro ezabatu behar dute. Horretarako, adibidez, baimendutako destilatzaile bati eman dakioke, destilaziorako erabil dezan, edo dena ondo kontrolatuta kendu, horretarako jarritako arauak ezartzen duen moduan.

Alabaina, ardogintzan aritu diren pertsona fisiko edo juridiko horiek ez badute 25 hektolitro ardo edo mosto baino gehiago ekoitzi beren instalazioetan, orduan, ez dute azpi-produktuak ezabatzen ibiltzeko inongo obligaziorik.

Bi. Aldatu egin ditugu 30. artikuluko 2. ataleko bigarren paragrafoan, erakundeen homologazioari buruz, jasota datozen betekizunak. Honela geratuko dira aurrerantzean:

“a) Nortasun juridiko berezia izan, eta zuzenbide pribatuaren mende egotea.

b) Beti nahiko baliabide edukitzea, bai langile kualifikatuena aldetik eta bai administrazio-azpiegituren aldetik, bere zereginak bete ahal izateko.

c) Nekazaritzako elikagaien kalitate-kontrolak egiten gutxienez bost urteko eskarmentua egiaztatzea; berdin dio aldi horretan erakundeak bere egitura juridikoa aldatu badu ere, baldin eta aldi horretako benetako eskarmentua zuzenbidean onartutako edozein bide erabilia egiaztatu ahal badaiteke.

d) Entidad Nacional de Acreditación (Enac) delakoaren egiaztatzea, hala agintzen baitute UNE-EN 45004 eta UNE-EN 45011 arauak”.

Hiru. Beste era batera idatzi dugu 50. artikuluko 1. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“1.- Ardoa egitetik sortutako azpi-produktuak ez ezabatzea.”

Lau. Kendu egin dugu 51. artikuluko 1. atala.

6. artikulua.- Aldatu dugun legea: Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumena babesten duen otsailaren 27ko 3/1998 Legea.

Bat. Beste era batera idatzi dugu 55. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

55. artikulua.- Aplikazio-esparrua.

1. Baldin eta jarduera eta instalazio publiko zein pribaturen batek eragozpenak eragin baditzake edo pertsonei edo beren ondasunei arriskuak sortu, edo ingurumenari kalteak eragin, jarduera eta instalazio horrek ondorengo artikuluetan zehaztuko diren lizentzia administratiboa edo komunikazio-erregimena bete beharko du, derrigorrez eta funtzionatzen hasi baino lehen. Jarduera eta instalazio horiek Lege honen II. Eranskinean datoz jasota, eta sailkatuak izen generikoa hartuko dute.

2.- Arau bidez zehaztuko da xeheago zein diren jarduera eta instalazio horiek.”

Bi. Beste era batera idatzi dugu 56. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“56. artikulua. – Eskumenak eta izena

1.- Aurretiko administrazio-baimena emateko eskumena edo sailkatutako jarduera bat jartzeari buruzko komunikazioa jasotzeko, edo jarduera hori zabaldu edo berriztatzeko eskumena, jarduera hori jartzekoa den lurraldeko udalari dagokio.

2.- Udal-baimen horri jarduera-baimena esango zaio, eta formalizatzeko, ondorengo ataletan eta garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da.

3.- Komunikazio horri jarduera sailkatuari buruzko komunikazioa esango zaio, eta formalizatzeko, lege honetan eta legea garatzeko emango diren arauetan zehaztutakoa bete beharko da.”

Hiru. Beste era batera idatzi dugu 61. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“61. artikulua. – Jarduera-baimenaren eta obra egiteko nahiz irekitzeko baimenen arteko lotura.”

Lau. 61 bis artikulua berria gehitu diogu Legeari. Honela geratuko da aurrerantzean:

“61 bis artikulua.- Jarduera sailkatuaren komunikazioa.

1.- Jarduera bultzatu duen partearen komunikazioa dagokion udaletxean formalizatu behar da, obrak eta instalazioak bukatzen direnean. Obrak eta instalazioak egiteko, ezinbestean, dagokien hirigintza-baimena

eskuratu behar da, bai eta sektore horretan beharrezko diren gainerako baimen edo lizentzia guztiak ere.

2.- Komunikazioarekin batera honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- Ingurumenari buruzko memoria, jardueraren eta jarduerak ingurumenean eragingo duen kaltea murrizteko hartutako neurrien deskribapena eta guzti.
- Eskumena daukan teknikariak emandako ziurtagiria, egiaztatzen duena jarduera edota instalazioak bat datozela aurkeztutako proiektuarekin eta dokumentazio teknikoarekin eta ondo betetzen dituztela ingurumenarekiko betebeharrak guztiak, baita, hala tokatzen denean, ingurumen-inpaktuaren aitorpenean jasota betebeharrak ere.

3.- Komunikazioa egin eta gero, jarduera martxan jar daiteke jada, jardueraren titular direnen eta ziurtagiria eman duten teknikarien ardurapean erabat; horrez gain, jarduerak martxan jartzeko beharrezkoa izango da, sektorean aplikatzeko den araudiaren arabera, baimena edukitzeko eskuratu beharreko titulu administratiboak eskuratzea edo aurretik egin beharreko kontrolak egitea.

4.- Udaleko zerbitzu teknikoek dokumentazio teknikoa aztertu ondoren, udalak aukera izango du neurri osagarriak jartzeko, jarduera behar bezala bete dadin”.

Bost. Beste era batera idatzi dugu 64. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“64. artikulua.- Ikuskatzea eta kontrolatzea.

1.- Udalaren eskumena izango da lizentziaren edukian xedatutakoa benetan betetzeko eta behar diren ikuskapenak egiteko egin beharrekoak egitea. Tokian tokiko alkateak ahalmena du legez kanpoko jarduerak bertan behera utzi edo ixteko, lizentziak deuseztatzeko eta legez finkatuta dauden zigorrak ezartzeko.

2.- Jardueraren funtzionamenduak akatsak dituela ikusiz gero, akats horiek konpontzeko eskatuko dio alkateak titularrari. Akats horiek konpontzeko epea, behar bezala justifikatutako kasu berezietan izan ezik, ez da inoiz izango sei hilabete baino luzeagoa.

3. - Alkateak, Autonomia Erkidegoko ingurumen-organoak edo eskumena duen foru-organoak, prebentzioz, aukera izango du eraikuntza- edo ustiapen-fasean dagoen edozein jarduera erabat edo neurri batean gerarazteko, ondoko arrazoiren bat baldin badago:

- a) Sailkatutako jarduera-proiektuaren datuak ezkutatu, faltsutu edo maltzurkeriaz manipulatu izana.
- b) Proiektuaren ingurumen-baldintzak bete ez izana edo hautsi izana.

c) Nahikoa susmo edukitzea ingurumenari kalte larriak edo konponezinak eragiteko edo pertsona zein ondasunentzat berehalako arriskua eragiteko arriskua dagoela, harik eta egoera hori eragiten duten baldintzak aldatzen ez diren artean; halakoetan, arriskuak baloratzeko edo murrizteko behar diren neurriak har ditzakete.

4.- Funtzionatzen edo denboraldi baterako gerarazita edo behin betiko itxita dagoen jardueraren titularrak uko egiten badio ezarri zaion neurri zuzentzailea aplikatzeari, neurria aplikatzeko agindu dion agintariak aukera izango du, aurrez ohartarazita, berak aplikatzeko neurri hori titularraren orde; halakoetan, titularraren kontu izango dira horrek eragindako gastuak, eta premiamendu bidez exijituko zaizkio.”

Sei. Beste era batera idatzi dugu 65. artikulua eta 1. atalaren 1. paragrafoa. Honela geratuko da aurrerantzean:

“65.artikula. – Baimen edo komunikaziorik gabeko jarduerak.

1.- Egokitzen diren zehapenak zehapen, alkateak jakiten badu jarduera bat martxan dagoela horretarako beharrezko baimenak eskuratu gabe edo dagokion komunikazioa egin gabe, honako neurriak hartuko ditu:”

Zazpi. Beste era batera idatzi dugu 109. artikulua a) atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“a) Obra, proiektu eta jarduerak abiaraztea edo egitea aurretik lizentzia, baimena edo ingurugiroaren gaineko eraginaren ebaluazio egin gabe, edo zegokion komunikazioa egin gabe, edo ingurumen-lizentzietan edo baimenetan edo ingurumen-eraginaren aitorpenean ezarritako baldintzak bete gabe.”

Zortzi. Aldatu egin dugu Bigarren Xedapen Gehigarria. Honela geratuko da aurrerantzean:

“Gobernuari dagokio diru-zehapenen kopurua eguneratzea, bai eta Lege honetako II Eranskinean adierazi diren jarduera sailkatuen zerrenda eguneratzea ere.”

Bederatzi. Beste era batera idatzi dugu II. Eranskina. Honela geratuko da aurrerantzean:

“ II. Eranskina. Jarduera sailkatuen zerrenda.

A) Jarduera-baimena behar duten jarduera sailkatuak

- 1. Erauzketa-jarduerak*
- 2. Instalazio nuklearrak eta erradiaktiboak*
- 3. Energia ekoizteko instalazioak*
- 4. Industriak, oro har.*

5. *Gainazalaren tratamendua, bernizatze-lana edo pistola bidezko pintatze-lana edo halakoak egiten dituzten tailerrak.*
6. *Eranskin honetako B) idatz-zatian ageri direnez aparteko tailerrak eta lantegiak.*
7. *Eranskin honetako B) idatz-zatian ageri direnez aparteko hiltegiak, abeltzaintza-ustiategiak eta txakur-egoitzak.*
8. *Arrain-haztegiak.*
9. *Material toxiko, arriskutsu edota sukoi jotzen diren material eta produktuak edo hondakin arriskutsuak eragin ditzaketen material eta produktuak gordetzea, salerostea edo horien eraginera egotea dakarten jarduera eta instalazioak.*
10. *Aurrez aipatutakoez aparteko produktu eta materialak gordetzea, salerostea edo horien eraginera egotea dakarten jarduera edo instalazioak, baldin instalatutako potentzia totala (argiena kenduta) handiagoa bada 25 Kw baino, eta bertako azalera erabilgarria handiagoa bada 1.000 m² baino.*
11. *Gasolina-zerbitzuguneak eta hornitegiak, eta erregai likidoak edota gaseosoak banatzeko edo antzeko instalazioak.*
12. *Etxebizitzetarako hiri-lurzoruan kokatutako erregai likido eta gaseosoak biltzeko instalazioak, 10.000 litrotik gorakoak.*
13. *Hondakinak bildu, tratatu, berreskuratu eta deuseztatzeko instalazioak.*
14. *500.000 m³ baino gehiagoko lekua daukaten lur eta harkaitzen betegarriak, baldin urtebete baino gehiago iraungo badute; azpiegitura lineatarako obrei lotutakoak izan ezik.*
15. *Hondar-urak arazteko instalazioak.*
16. *Errauste-labeak dituzten hilerri eta tanatorioak.*
17. *Osasunean eta ingurumenean antzeko eragina duten bestelako jarduerak.*

B) Komunikazioa behar duten jarduera sailkatuak

1. *Etxeko oilategiak eta abere-ustiategi txikiak, 20 GLA artekoak (ganadu larri ale), edo horren pareko ustiategiak, irailaren 22ko 515/2009 Dekretuaren 3. artikulua a) idatz-zatian adierazitako proportzioen arabera.*
Ustiategi horretan espezie bat baino gehiago egongo badira, egotekoak diren abere guztien baliokidea kalkulatu behar da GLA unitatetan, esandako baliokideen arabera; betiere, 20 GLA izango da gehienezko muga.
Txakurtegiak ere hemen sartzen dira (haztegiak eta hezitegiak), gehienez ere 25 txakurrentzako lekua daukatenak.
2. *Hainbat tailer (aroztegiak galdaragintza-tailerrak, muntaia-tailerrak, mekanizaziokoak,...) eta lantegi (okindegia, opildegia, catering,...), baldin eta instalatutako potentzia totala (mekanikoa edota elektrikoa, argiarena kenduta) txikiagoa bada 25 Kw baino eta bere azalera erabilgarria ez bada 300 m²-tik gorakoa; hortik kanpo geratzen dira gainazalaren tratamendua, bernizatze-lana, pistola bidezko pintatze-lana edo halakoak egiten dituzten tailerrak, Eranskin honetako A) hizkian baitaude sartuta.*

3. *Material toxiko, arriskutsu edota sukoi ez diren material eta produktuak edo hondakin arriskutsuak eragiten ez duten material eta produktuak gordetzea, salerostea edo horien eraginera egotea dakarten jarduera eta instalazioak, baldin instalatutako potentzia totala (mekanikoa edo elektrikoa, argiena kenduta) 25 Kw edo txikiagoa bada, eta bertako azalera erabilgarria 1.000 m²-koa edo txikiagoa bada.*
4. *Ibilgailuen gordailua.*
5. *Erregai likidoak edo gaseosoak biltzeko instalazioak; sailkapen honetatik kanpo geratzen dira gasolindegia batean, hornitegi-parke batean, banatze-instalazio batean edo horren pareko instalazio batean daudenak.*
6. *Zerbitzu batzuk: haurtzaindegia, ikastetxeak, osasun-zentroak eta botikak, albaitaritzak, kirol-zentroak, kultur zentroak, polizia-etxeak eta segurtasun-zentroak, bulegoak, ile-apaindegia, masaje-etxeak eta abar.*
7. *Hotelak eta erresidentzia komunitarioak, edadetuen egoitzak, ostatuak eta halako etxeak.*
8. *Tabernak, kafetegiak, jatetxeak, diskotekak, bingoak, festa-lekuak eta halakoak.*
9. *Jendaurreko ikuskizun publikoak eta ekintza jostagarriak.*
10. *Eraldaketak-zentroak.*
11. *Informazioa tratatu eta komunikatzeko zentroak (kalkulu-zentroak, datu-bankuak, irrati-errepikagailuak eta telebista-errepikagailuak, satelite bidezko errepikagailuak, telefonia mugikorreko antenak, irrati-telefonoko estazioak eta estazio irrati-telegrafikoak, irrati-igorgailuak, telebista-igorgailuak, alarmak kontrolatzeko zentralak).*
12. *50 Kw baino gehiagoko potentzia daukaten energia fotovoltaiakoko instalazioak.*
13. *Instalazio osagarriak*
 - 13.1. *Galdara-gelak.*
 - 13.2. *Airea girotzeko instalazioa*
 - 13.3. *Hozkailuen instalazioak*
 - 13.4. *Erradio-diagnosi medikoa egiteko instalazioak; alegia, aplikatzeko den erregelamenduaren arabera, diagnosi medikoak egiteko helburua daukaten X izpien ekipoak eta instalazioak.*
- 14.- *Errauste-laberik ez duten hilerriak eta tanatorioak.”*

7. artikulua- Aldatu dugun legea: Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluei buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legea.

Bat. Beste era batera idatzi dugu 6. artikuluko 2. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“2.- Kontseilu profesionalek edo, bestela, elkargoek, beren kideek bete beharreko beste bateraezintasun batzuk ezar ditzakete estatutuetan, kasuan kasuko lanbidearen inguruan, arlo horretako legedia bereziak xedatzen duenaren arabera”.

Bi. 5. atala gehitu diogu Legearen 6. artikuluari. Honela geratuko da aurrerantzean:

“5.- Edonola ere, lanbide bat bera bakar-bakarrik egitera behartzen duten baldintzak edo lanbide bi edo gehiago aldi berean egitekotan neurriak jartzen dituzten baldintzak, eta kolegiatutako lanbideetan merkataritza-komunikazioei aplikatzen zaizkien murrizketak, izan ere, soil-soilik Legeak ezartzen dituen horiexek izan daitezke. Elkargoek aukera daukate berek arautzeko beren kideei zein baldintza exijitu merkataritza-komunikazioei dagokienez; baldintzok, betiere, legearen barruan egon behar dute.”

Hiru. Beste era batera idatzi dugu 7. artikuluko 2. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“2.- Gaiagatik edo beste arrazoi batzuk direla medio, elkargoaren arauak exijitzen badute jardunak eskusiboa izan behar duela, arauak berek finkatuko dute profesionalak ordezkatzeko baldintzak zein izango diren”.

Lau. Beste era batera idatzi dugu Legearen 15. artikuluko 2. atalaren g) idatz-zatia. Honela geratuko da aurrerantzean:

“g) Lehia desleiala diren egintzak, lehiaren eta lehia desleialaren zuzenbidearen inguruan indarrean dagoen legediaren arabera.

Bost. Beste paragrafo bat gehitu diogu 22. artikuluari. Honela geratuko da aurrerantzean:

“Profesionalen Elkargoek, bai funtzionamenduan bai hartuko dituzten erabaki eta akordioetan, lehiaren defentsaren arloan indarrean dagoen legedia bete beharko dute, bai eta, autonomiaz autonomia, lehiaren arloan indarrean dauden arauak ere”.

Sei. Aldatu egin dugu Legearen 23. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“Lege hau indarrean sartzen denean oraindik elkargorik ez daukaten lanbideei aukera emango zaie elkargoan biltzeko, baina soil-soilik lanbide horretan jarduteko unibertsitate-mailako titulua behar bada eta indarrean dagoen araudiak lanbide kolegiatutzat jotzen baditu”.

Zazpi. Beste era batera idatz ditugu Legearen 24. artikuluko e), i), n) eta ñ) idatz-zatiak. Honela geratuko dira aurrerantzean:

“e) Irizpide orientatiboak prestatzea, zehazki, kostak tasatzeko eta abokatuen kontuei zin egiteko. Irizpide horiexek baliatuko dira baita ere ordainsariak eta eskubideak kalkulatzeko, laguntza juridiko doakoari dagozkion kostak tasatu ahal izateko.

i) Lanbide teknikoei dagokienez, bakoitzaren eskumen-esparruko lan profesionalak ikus-onestea, bezeroek (herri-administrazioak barne) halaxe eskatzen dutenean, edo indarrean dagoen araudiak hala agintzen duenean. Ikus-onespenaren helburua da, gutxienez, lana egin duena nor

den eta zer gaikuntza duen ikustea, eta lan profesional horren dokumentazioa zuzena eta formaz egokia dela ziurtatzea, dena delako lan horri aplikatzekoa zaion araudiaren arabera. Ikus-onespenak oso argia izan behar du bere xedeari, kontrolatu diren kontuei eta elkargoak hartzen duen erantzukizunari buruz, baina ez ditu inola ere agertuko ez ordainsariak ez eta kontratuaren baldintzak ere, bai bata eta bai bestea aldeek adostutako akordioaren barruan finkatu beharko dira.

Elkargoaren ikus-onespena ezinbestekoa den kasuetan, ikus-onespenaren kosteak modu onekoa izan behar du, ez gehiegizkoa ez eta diskriminatzailea ere. Elkargoek publizitatea eman behar diote ikus-onespenaren kostuari; telematikaren bidez ere eman daiteke kostuaren berri.

n) Urteko memoria egitea, eta elkargo profesionalaren web-orrian argitaratzea.

ñ) Elkargo Profesionala erabiltzen dutenei eta bere zerbitzuak kontsumitzen dituztenei kasu egiteko zerbitzua sortzea; aurkeztutako kexak eta erreklamazioak aurkezteko, bertara joan gabe eta bide elektronikoz.

Zortzi. Beste bi idatz-zati gehitu dizkiogu, o) eta p), 24. artikuluari. Honela geratuko dira aurrerantzean:

“o) Profesionalen interesen aldeko diren gainerako funtzioak eta elkargoaren helburuak betetzeko asmoa duten zeregin guztiak, baita elkargoko kideei buruz eta kideei ezarri zaizkien zehapen irmoei buruzko galderei erantzutea, eta Europar Batasuneko edozein estatutako agintari eskudunak egindako ikuskaritza- edo ikerketa-eskaerei erantzutea (zerbitzuen eskuragarritasun- eta erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legearen 27.4 artikulua xedatuta bezala; batez ere, kontuan hartu beharrekoa da argi xedatzen duela informazio-eskaerek eta kontrolak, ikuskapenak edota ikerketak egiteko eskabideek ondo justifikatuta egon behar dutela, eta horretatik ateratako informazioa soil-soilik lan hori eskatzean bete nahi zen helburua betetzeko erabil daitekeela, ez beste ezertarako) .

p) Indarrean dagoen legeriak agindutako beste edozein zeregin, bai eta beren kideen zerbitzuak jasotzen dituzten kontsumitzaile eta erabiltzaileei behar besteko babesa eman ahal izateko beharrezko jotzen diren zeregin guztiak ere”.

Bederatzi. Aldatu egin dugu Legearen 38. artikuluko 2. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“2.- Elkargo-kideek aukera izango dute beren hasierako elkargoa ez den beste elkargo baten eremuaren baitan ere lanean jarduteko, baldin eta, indarrean dauden arauen arabera, elkargoak ezarritako arau orokorrak eta espezifikokoak errespetatzen badituzte. Nolanahi ere, ezingo dira eskubide osoko kide izan gaikuntza emango dien elkargoko organoetan.”

Hamar. Beste era batera idatzi dugu Legearen 39. artikuluko 1. ataleko 2. paragrafoa. Honela geratuko da aurrerantzean:

“Lanbidea lurralde-elkargoka antolatzen denean, aski izango da haietako bakar batean sartzea, hau da, lanbide-egoitza bakar edo nagusiaren elkargoan, estatu guztian jarduteko. Baldin eta Europar Batasuneko beste herrialde batetik aldi baterako etorritako profesional baten kasua bada, kualifikazioak aitortzeko, legeria europarreko indarreko araudiak xedatzen duenaren men geratuko da.

Hamaika. 4. atala gehitu diogu 18/1997 Legearen 39. artikuluari. Honela geratuko da aurrerantzean:

“4.- Elkargoek ezin diete exijitu inongo komunikaziorik edo gaikuntzarik elkargoa daukaten lurraldetik kanpo lan egiten duten kideei, ez eta jasotzen dituzten prestazioengatik, elkargoaren kuotak berak ordaintzen ez dituela-eta, beren kideei normalean eskatzen dizkieten ordain ekonomikoez aparte beste ordainik ere exijitu.

Hamabi. Aldatu egin dugu Legearen 40. artikuluko 2. atala. Honela geratuko da aurrerantzean:

“2.- Europar Batasuneko herrialderen batean finko dagoen profesional orok, lege honen lurralde-esparruan jardun nahi baldin badu, kasuan-kasuan indarrean dauden arau komunitarioak bete beharko ditu.

Horrez gain, profesionalek aukera dute beren kasa edo beste batzuekin batera jarduteko, jarduera profesional berdinekoekin edo bestelakoekin. Beren kasa edo besteren batekin jardunda ere, sozietate moduan jardun dezakete; jakina, legeek baimentzen dituzten sozietateak eratuta.

Hamahiru. Beste era batera dugu Legearen 50. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“50. artikulua.- Baliabideak.

1. Elkargo eta kontseilu profesional bakoitzak bere jarduera garatzeko beharrezko dituen baliabide materialak eta giza baliabideak izango ditu eskueran. Elkargoek eskainiko dituzte kontseiluetarako giza baliabideak, elkargoetako estatutuek besterik xedatzen ez badute behintzat. Elkargo-kideek jarritako kexa edo erreklamazioei aurre egiteko bezain bestekoak izan behar dute baliabide horiek. Horrez gain, kontsumitzaile eta erabiltzaileei kasu egiteko zerbitzua eduki behar dute Elkargo Profesionalek, elkargo-kideen jarduera profesionala edo kolegiatua dela-eta inork aurkezten dituen kexa eta erreklamazioei erantzuteko. Zerbitzu hori erregulatzean, aukera eman beharko da kexak eta erreklamazioak mezu elektronikoz eta bertara joan gabe aurkezteko.

2. Elkargo-erakundeek web-orria eduki behar dute, profesionalek aukera izan dezaten, leihatila bakarraren bidez (zerbitzuen eskuragarritasun- eta

erabilera-askatasunari buruzko azaroaren 23ko 17/2009 Legeak dakarrena), elkargoko kide egiteko, kidegoan jarduteko eta baja emateko beharrezko izapide guztiak egiteko puntu bakar baten bidez, elektronikoki eta bertara joan gabe, aipatutako 17/2009 Lege horren 18.2 artikulua jarritako baldintzatan, betiere.

3. Elkargo eta kontseilu bakoitzak bere aurrekontua izango du. Aurrekontua gutxi gorabeherakoa izango da, eta urte bakoitzerako aurrez ikusten diren diru-sarrera eta gastu guztiak jasoko ditu.

4. Elkargo profesionalak eta kontseiluak auditoria pasatzera derrigortuta daude. Aurrekontuaren ekitaldi bakoitzean egingo zaie auditoria, estatutuetan jarrita daukaten moduan; halere, Kontu Publikoen Euskal Auzitegiaren fiskalizazioa ere izango dute, bere lege arautzaileak ezarri bezala.”

Hamalau. Tituludun lanbideei eta profesionalen elkargo eta kontseiluen jardunari buruzko azaroaren 21eko 18/1997 Legearen artikuluetan, *“Justizia, Ekonomia, Lana eta Gizarte Segurantzako Saila”* aipatzen denean, honako honetaz ari dela ulertu behar da: *“Elkargo Profesionalen arloan eskumena daukan saila.”*

8. artikulua.- Aldatu dugun legea: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legea.

Bat. Aldatu egin dugu Legearen 9. artikuluko 1. atala aldatu egin da. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“1.- Ondarezko diru-izendapena edozein eratako ondasun eta eskubidek osa dezakete. Izendapenak nahikoa izan behar du fundazioaren helburuak bete ahal izateko; alegia, fundazioa diruz bideragarria izateko. Diru-izendapena nahikoa izango da, baldin da ondarea osatzen duten ondasun eta eskubideen balio ekonomikoa 30.000 eurokoa behintzat bada. Ez bada hainbestekoa, fundazioa eratu duen pertsona fisiko edo juridikoak, eratzeko eskrituran bertan, lehenengo jardun-programa berak jarri beharko du, bai eta profesional independente batek prestatutako ikerlan ekonomikoa ere, fundazioa diruz bideragarria dela bermatzen duena.”

Bi. 3. atala aldatu egin dugu eta 5 eta 6 atal berriak gehitu dizkiogu 11. artikuluari. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“3.- Pertsona juridikoek pertsona fisiko bat jarri behar dute gobernu-organon, beren ordezkari, baina ordezkari hori ez da erregistroan inskribatuko.

5.- Patronatuko kideak izendatzeko ahalmena pertsona juridikoren batek badauka, pertsona juridikoa hori bera izango da patronatuko kidea.

6.- Pertsona juridikoak ordezkari izateko pertsona fisikoren bat edo batzuk izendatzen baditu, pertsona juridiko horrek patronatu-kide

aitortzen du bere burua, eta aitortpen horrek izendapenaren egunetik bertatik izango ditu ondorio juridikoak.”

Hiru. Beste era batera idatzi dugu Legearen 12. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“12. artikulua.- Onarpena.

Eratze-organoko kideak kargua berariaz onartu eta gero hasiko dira lanean.

Gobernu-organoko kideak pertsona juridikoak baldin badira, nahikoa izango da pertsona horiek kargua onartzea; halere, obligazioa izango dute karguaren zereginak betetzeko beren ordezkari izango den pertsona fisikoa izendatzeko, eta ez da beharrezkoa izango ordezkari izango den pertsona fisikoak berariaz izendapena onartzea.

2. Onarpen hori Fundazioen Erregistroan jasoko da, eta era hauetako batean gauzatuko da:

- a) Eratzeko eskritura publikoan bertan edo beste eskritura batean.*
- b) Agiri pribatu batean, notarioak legeztatutako sinaduraren bitartez.*
- c) Esandako erregistro horretako arduradunarengana jo eta berari aurkeztuta.*

3. Onarpen hori erregistroan inskribatu behar da, eta patronatoaren aurrean ere gauza daiteke, idazkariak emandako egiaztagiriaren bidez ziurtatuta; egiaztagiriak notarioak legeztatutako sinadura eduki behar du, edo berarengana jo eta Fundazioen Erregistroko funtzionarioak egiaztatutakoa.

Lau. Aldatu egin da Legearen 31. artikuluko 1. atala. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“1.- Gobernu-organoak fundazioaren estatutuak aldatzea erabaki dezake, baldin eta estatutu berriek fundazioaren helburuari men egiten badiote halere, eta fundatzaileak aldatzea debekatzen ez badu. Aldaketa ez baldin bada fundatzaileak jarritako helburuak aldatzea edo kentzea, eta estatutuek ez badute debekatzen aldaketa egiterik, fundazioaren helburua errespetatzen dela joko da; hortaz, ez da beharrezkoa izango artikuluko honetako laugarren atalak aipatzen duen protektoratuak aldatzeko baimena ematea.”

Bost. Aldatu egin dugu Euskadiko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen laugarren Xedapen Gehigarriaren 2. ataleko c) idatz-zatia (Euskadiko Elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legearen bigarren Azken Xedapenaren indarrez sartu zen legean xedapen hori). Honela geratuko da aurrerantzean:

“c) Ezarritako baldintzak bete direla egiaztatzeko, fundazioaren konstituzioak proposatuta, egiaztatzeko ahalmena daukan administrazio-organora jo behar da”.

9. artikulua.- Aldatu dugun legea: Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikoari buruzko ekainaren 17ko 11/1994 Legea.

Kendu egin dugu 31. artikuluko 3. ataleko bigarren paragrafoa.

10. artikulua.- Aldatu dugun legea: Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legea.

Bat. Beste bi paragrafo gehitu dizkiogu 59. artikuluari, 1 bi eta 1 ter. Aurrerantzean, honela geratuko da:

“1 bis.- Gizarte-zerbitzuak betetzen eta eskaintzen jarduteko beharrezko den administrazio-baimena eskuratzeko, aseguru-poliza bat hitzartu beharko da aurrena, titularren erantzukizun zibila estalita edukitzeko, lokal, instalazio eta zerbitzuetako baldintza objektiboak direla-eta edo zerbitzuko langileen lana dela-eta erabiltzaileei inolako kalterik eragiten bazaie ere.

1 ter.- Eskumena daukan administrazioak hiru hilabeteren barruan eman behar du ebazpena, baimena ematearen aldekoa edo kontrakoa, eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita. Baimena eman edo ukatzeko prozesuan administrazioak isiltasunaren bidetik jotzen badu, esan nahiko du baimena ukatu egiten duela, gizarte-zerbitzuak jasoko dituzten erabiltzaileei behar besteko babesa emate aldera”.

Bi. Beste bi Xedapen Gehigarri gehitu ditugu, hamalagarrena eta hamabosgarrena. Honela geratuko dira:

Hamalagarrena.- Gizarte-zerbitzuak bete eta eskaintzeko beharrezko administrazio-baimen bakoitza tegi bakarrerako izango da.

Baldin eta dena delako zerbitzua bete eta eskaintzeko ezinbestekoa bada tegia edukitzea, hori izateko zerbitzua eskaintzeko oinarri egonkorra, orduan, Lege honetako 59. artikulua zehazten dituen baimenetatik bakoitza tegi bakarrerako izango da, gizarte-zerbitzuak erabiliko dituztenei behar bezalako babesa emateko.

Baldin eta zerbitzua ematen duen enpresa edo pertsona jadanik Espainian jarrita badago eta legez badabil lanean, administrazioaren baimena eskuratzekoan, ezingo zaio agindu jarduera gauzatzeko oinarri erabiliko duen tegiari espezifikoki lotuta ez dauden bestelako baldintzak ere bete ditzala.

Hamabosgarrena.- Mugaz gaindiko gizarte-zerbitzuak.

Gizarte-zerbitzuak eskaintzen dituzten pertsona fisiko edo juridikoak Europar Batasuneko beste estatu batean kokaturik baldin badaude, libre eskaini ahal izango dituzte zerbitzu horiek, erregistroan izena eman beharrik gabe, eta gizarte zerbitzuak betetzeko eta eskaintzeko aurretiazko administrazio-baimena lortu beharrik gabe.

11. artikulua.- Aldatu dugun legea: Familia Bitartekaritzari buruzko otsailaren 8ko 1/2008 Legea.

Bat. 1. artikuluko 1. paragrafoa aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“1.- Lege honen xedea da familia-bitartekaritza arautzea, Gizarte Zerbitzuetako Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko bigarren mailako arretako gizarte-zerbitzua izateko moduan. Euskal Autonomia Erkidegoan familia-bitartekaritzako programa publikoetan parte hartzen duten familia-bitartekaritzako profesionalen jarduera ere arautuko du, aintzat hartuta familia-bitartekaritzaz baliatzea eskubidea dela eta familia-bitartekaritzako zerbitzuak eman beharra dagoela”.

Bi. 2. artikuluko 1. paragrafoa aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“1.- Zati batean edo osorik Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean egiten diren eta familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programa publikoetan bitartekarien eskutik ematen diren jardueretan aplikatu behar da lege hau”.

Hiru. 3. paragrafoa gehituko zaio 2. artikuluari. Honelaxe geratuko da idatzita:

“3.- Lege honen aplikazio-eremutik kanpo geratuko dira jarduera hauek:

- a) Elkargo Ofizialek egiten duten familia-bitartekaritzaren kasuan, arauak ematen dien autonomiaren bidez egindakoa denez, Elkargoek berek ezarriko dutelako zein arauetara moldatu beharko duen bitartekaritza-lan horrek.*
- b) Beren lanbidea Euskal Autonomia Erkidegoko familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programetatik kanpo gauzatzen duten bitartekariak egindako familia-bitartekaritza”.*

Lau. 9. artikuluko 1. paragrafoa aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“1. Familia-bitartekaritzako zerbitzu eta programa publikoetan bitartekari jarduteko, ezinbestekoa da Bitartekarien Erregistroan inskribatzea. Inskripzio hori egiteko, unibertsitateko titulua edo Zuzenbide, Psikologia, Pedagogia, Gizarte Lan edo Heziketa Sozialeko graduaren titulua edo lege hau arauen bidez garatzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak

prestakuntzako edukiak kontuan hartuta horien parekide jarriko duen titulua aurkezteaz gain, ezinbestekoa izango da familia-bitartekaritzako prestakuntza espezifikoa, nahikoa eta jarraitua ere egiaztatzea.”

Bost. 11. artikuluko 2, 3 eta 4. paragrafoak ezabatu egin ditugu.

Sei. Beste era batera idatzi dugu 15. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“15. artikulua.- Aldeen eskubideak

Bitartekaritzan parte hartzen dutenek honako eskubideak izango dituzte:

- 1. Familia-bitartekaritza erabiltzeko eskubidea, legez aurreikusitako baldintzetan.*
- 2. Familia-bitartekaritzaren prozedura edozein unetan uzteko eskubidea.*
- 3. Bitartekaria atzera botatzeko eskubidea, Lege honetako 14.3 artikuluaaren babesean.*
- 4. Bitartekaritzak irauten duen bitartean, bitartekariarena ez den eta egokia iruditzen zaien beste pertsona baten aholkularitza jasotzeko eskubidea.*

Zazpi. 16. artikuluko c) idatz-zatia aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“c) Bitartekaritza-lan hori egitearen trukean, bitartekariari ordainsari profesionalak eta sortu diren gainerako gastuak ordaindu behar zaizkio; salbuespena izango da bitartekaritza-zerbitzua publikoa bada eta zerbitzua doan ematen badu. Ordainsaria berdin-berdin emango zaio bitartekariari, legeak jasotako edozein arrazoi dela medio bere bitartekaritza-lana ez arren, konpentsatu beharreko lana egin duelako halere.

Zortzi. 17. artikuluko 1. paragrafoa aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“1.- Bitartekarien Erregistroa eratu da, familia-bitartekaritzako arloan eskumenak dituen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita.

Bederatzi. 29. artikuluko e) idatz-zatia ezabatu egin ditugu.

Hamar. 29. artikuluko n) idatz-zatia aldatu dugu; aurrerantzean honela egongo da idatzita:

“n) Doako bitartekaritza eman behar duten zerbitzu publikoetan bitartekaritza-jardueraren truke edozein ordainsari, sari ekonomiko edo zenbateko jasotzea”.

12. artikulua.- Aldatu dugun legea: Ekainaren 30eko lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legea.

Beste era batera idatzi dugu 213. artikulua. Honela geratuko da aurrerantzean:

“213. artikulua.- Hirigintza-araubidea, batetik, eta jarduera sailkatuen edo ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten jardueren araubidea, bestetik, uztartzea.

1.- Sailkatutako jardueretarako araubidearen, ingurumen-eraginaren ebaluazioaren eta lege honetan aurreikusitako hirigintza-lizentzien arteko harremana, hain zuzen, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrean ezarritako arautuko du. Komunikazio-araubidearen mendeko jarduera sailkatuak baldin badira, dena delako udaletxeak, hirigintza-baimena emateko dagokion izapidearen barruan, jarduera jarriko den inguru hurbileko auzokoei pertsonalki jakinaraziko die jarduera bat jartzekoa dela bertan, eta 10 eguneko epea emango, nahi duten alegazioak jartzeko.

2.- Lizentziak ematerakoan, bidezkoa bada, honako neurri hauek zehaztuko dira:

a) Lizentzia horien xedea jarduera-baimena behar duten jarduera sailkatuen araubidearen mendeko erabilera edo jarduerak badira, neurri zuzentzaileak eta neurriok eraginkortasunez hartu, gauzatu eta benetan funtzionamenduan jarri direla egiaztatzeko prozedurak, sailkatutako jardueri buruzko araudiaren arabera egokitzen direnak.

b) Lizentzia horien xedea ingurumen-eraginaren ebaluazioa behar duten erabilera eta jarduerak badira, ingurumen-eragina murrizteko, zuzentzeko eta jarraipena egiteko neurriak –horri buruzko adierazpenean aurreikusten direnak “.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Bakarra.- Erregistroak egokitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioako sailek, bakoitzak bere eskumenen barruan, beharrezko neurri guztiak hartu beharko dituzte zerbitzuak eskaintzen dituzten horien inskripzioak ondo egokitu daitezzen bakoitzari dagokion erregistrora.

ALDIBATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa.- Aldi baterako araubidea.

1. Lege hau indarrean jarri aurretik abian ziren baimena emateko prozedurak baimena jasotzeko eskabidea aurkeztu zen garaian indarrean zegoen araudiaren arabera izapidetu eta ebatziko dira.

2. Aurreko paragrafoko xedapena xedapen, baimen-eskaera egin duenak aukera izango du, ebazpena eman aurretik, eskaera atzera botatzea eta araudi berria aplikatu diezaiotela eskatzea.

Bigarrena.- Zerbitzu baimenduak edo horretarako gaitasuna daukaten pertsona eta enpresei lege hau aplikatzea.

Lege honen xedapenek aurretik eskuratu beharreko administrazio-baimenaren araubidearen ordeztuz, adierazpen arduratsua edo aurretiko komunikazioa ezartzen dute zerbitzu-jarduerak jarri eta emateko bidetzat. Xedapen horiek baimendutako edo gaitutako pertsonen eta enpresei aplikatuko zaizkie; horretarako, jakin behar da emandako baimenak edo gaituntzak, zuzenean eta besterik gabe, adierazpen arduratsua edo aurretiko komunikazioa ordeztuko dituela.

Hirugarrena.- Jarduera sailkatuei buruzko komunikazioa.

Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege orokorraren 56. artikuluan jasota datorren araudi-garapena agindu bitartean, jarduera sailkatuen eskaerarekin batera aurkeztu behar den ingurumenari buruzko memoriak, gutxien gutxienez, martxoaren 9ko 165/1999 Dekretuaren IV. Eranskinak adierazten duen dokumentazio teknikoa adierazi behar du. Izan ere, dekretu horrek adierazten Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak agintzen duen jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jardueren zerrenda, jarduera bakoitzaren bereizgarri zehatzak kontuan hartuta prestatzen dena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Bakarra.- Martxoaren 9ko 165/1999 Dekretua baliogabetu dugu. Dekretu horrek adierazten du Euskadiko Ingurumena Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorrak agintzen duen jarduera-lizentzia eskuratzetik salbuetsita dauden jarduerak zein diren; baina baliogabetze honek ez dio eragingo Hirugarren Aldibaterako Xedapenari. Halaber, baliogabetu egingo ditugu Lege honek agindutakoaren kontra ari diren maila berdineko edo baxuagoko xedapen guztiak ere.

AMAIERAKO XEDAPENAK

Lehena.- Erregelamendu bidezko gaituntza.

Ahalmena emango diogu Eusko Jaurlaritzari lege hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren erregelamendu-xedapenak sortzeko, dagozkion eskumenen esparruan.

Bigarrena.- Indarrean sartzea.

Lege hau Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.